

BILBOKO XXXIII.LIBURU AZOKA

2003/V/29 – 2003/VI/08

**ON KARMELO ETXENAGUSIARI
«URREZKO LUMA» EMOTEA.**

* * *

ENTREGA DE LA «PLUMA DE ORO»

Bilbo, 2003-VI-02

Lorentzo «Lontzo» Zugazaga

Egunon, guztioi:

Bai dala pozgarria eta atsegina niretzat On Karmelok jasoko dauan «Urrezko Luma» saria dala-ta, maisu izana eta aspaldiko lagun dodana esker onez aurkeztea!

* * *

Constituye para mí un gran honor y me resulta gratificante hacer esta breve presentación de D. Carmelo.

+ D. Carmelo nació en Iurreta (Bizkaia) el 24 de abril de 1932, en una familia euskaldun y vasco parlante. Su niñez se desarrolló exclusivamente en euskera, tanto en el ambiente familiar como en el vecindario y en el pueblo. El contrapunto lo puso la escuela, en la que toda la instrucción era en castellano. Como confiesa él, fue en la Iglesia (parroquia) donde se inició su lectura en euskera, cuando aprendía de memoria los tres grados del catecismo:

«Guraso biak euskaldun garbiak nebazan. Etxean, auzoan eta herrian beti euskera hutsa egiten genduan. Eskolan, ostera, dan-dana irakasten euskuen erderaz. Eleizan irakasten euskuen euskeraz kristinau ikasbidea, hiru mailak buruz ikasi arte. Horixe izan zan nik euskeraz irakurri neban gauza bakarra, Seminariora joan arte».

+ Ingresa en el Seminario de Artea/Arteaga-Gaztelu-Elexabeitia y pasa al Seminario de Vitoria/Gasteiz. Toda la formación del seminario la recibió en castellano. No obstante, ya desde los primeros años de «latín» comenzó a leer algunas obras de autores vascos, hasta que fue ordenado presbítero en el año 1955. Mientras realizaba los estudios de filosofía comenzó a escribir algo en euskera: cartas a su madre, diario...

«Seminarioan erdera hutsez zan irakaskuntza eta bizimodu osoa. Halan bere, Seminario txikian nengoala hasi nintzan euskerazko lehenengo liburuak irakurten: Zamarripa, «Lizardi», «Orixe»...Filosofian nengoala, zerbait euskeraz idazten be hasi nintzan: egunkaria, eskutitzak amari... Bape ordena barik, baina euskerazko liburu gehiago be irakurri nebazan, abade egin arte, 1955eko ekainaren 29an, S. Pedro egunez».

+ Recién ordenado, recibe el nombramiento de Formador y Profesor en el Seminario Menor de Derio. Ese mismo año ingreso yo en el seminario y creo que habré sido el primero en bailar el «zortziko» en dicho seminario. Ocurrió a instancias de D. Carmelo, en el «preseminario». Llegamos a bailar juntos, en pantalón corto, Zarrabe, Gabika, Arriola... Más tarde, formamos grupo, e incluso varios grupos bajo la batuta de J. A. Retolaza y Juan Mari Uriarte. Precisamente yo había aprendido a bailar en mi pueblo, Gámiz, con Juan Mari. Él era seminarista y, cuando yo tenía ocho años formó dos grupos de «dantzaris», uno de mayores (jóvenes) y otro de pequeños (niños).

En esos años Carmelo, además de ser formador (prefecto) e impartir clases de latín a los pequeños, imparte también algunas clases de euskera a los seminaristas mayores, aunque en condiciones un poco precarias.

* * *

Irakasle eta hezitzaile izan genduan, eta gogoratzen naz haserre egin behar euskunean, behin baino sarriago, gorritu egiten zala bera. Ez zan nonbait haserre egiteko eta haserrerako jaioa gure mutila!!!

Aldi berean, euskera irakasten hasi zan. Berak dinoskunez:

«Derioko seminarioan euskerazko eskola batzuk emoten hasten naz, seminario nagusikoei, ganora handi barik eta argitasunez urri».

* * *

+ El año 1958 es enviado por la diócesis a la Universidad de Comillas, a realizar estudios de Derecho Canónico:

«Comillasera bialdu ninduen», «Ius Canonicum» ikasten, eta hantxe be euskeraz irakurten jarraitzen dot, baina ez gauza handirik».

* * *

+ Vuelve al seminario, con la licenciatura en Derecho Canónico, el año 1960, ahora ya como formador para el Seminario Mayor. Ejerce la docencia en el campo de las leyes eclesíásticas y también enseña lengua y literatura vasca. Confiesa que, al tener que enseñar, ha progresado y se ha capacitado mejor para la docencia del euskera. En estos años sesenta nacen y se publican sus primeras «criaturas», al hilo de los apuntes que prepara para las clases:

• *Bizkai'ko euskal-idazleak. Lorategia. Derio 1965 (policopiado).*

- *Gipuzkoa'ko euskal-idazleak. Lorategia*. Derio 1967 (idem).
- *Euskal idazleen lorategia*. Itz lauz. Donostia 1969.

* * *

1960. urtean barriro bihurtzen da Seminariora, nagusira orain:

«Euskerazko eskolak be emoten ditut, eliz legeakaz batera. Apurka-apurka –dino– emon ahala ikasi be egiten dot, eta gramatikeagaz batera euskal idazleak irakurten be hasten gara. Hortik sortuko dira nire «lorategiak»: bizkaierazkoa eta gipuzkoerazkoa, neure ikasleentzat, polikopiaz».

(Ondotxo gogoratzen naz «edizino» hareetako testu eta marrazkiez).

«Gero,–dino Karmelok– I. Beobidek irarkolan argitaratzen deust bion «ume» barria, alfabetatze kanpainarako».

(Gogoan al dozu Karmelo sasoi horretan zelan bultzatzen ginduzuzan idaztera? Lehiaketa modukoak prestatzen zenduzan oporraldietan idatzi gen-gian eta sari mordoia izaten genduan; literatur-liburuak eskeintzen zeunkuzan, filosofia eta teologia ikasle ginan abadegaioi, irakurzaletasuna bultzatu guran. Holan eskuratu genduzan A. Santi Onaindiaren *Milla Euskal Olerki Eder* eta Orixeren *Euskaldunak* poema).

* * *

+ En los años '60, gloriosos en muchos aspectos, se celebra un gran acontecimiento eclesial, el Concilio Euménico Vaticano II (1962-1965), deseoso del «aggiornamento» de la Iglesia en aras de un servicio mejor del Evangelio al mundo contemporáneo. La Constitución «Sacrosanctum Concilium» sobre la Sagrada Liturgia supone un «giro» cualitativo en el área de la inculturación de la fe en toda su dimensión celebrativa. En esos años, llenos de ilusión y esperanza, *fervet opus* «hierve la tarea» en nuestras diócesis. Se han declarado oficiales para la liturgia las lenguas vernáculas. Ahí comienza una labor ímproba de traducciones al euskera: Misal, Rituales para los Sacramentos... (También se traducen materias, asignaturas de temas filosóficos y teológicos, cf. EHA, Euskal Herriko apaizgaiak, que traducen *Biología*, *Historia de la Salvación*, etc.).

Es un tiempo fecundo de gestación y de alumbramiento de todo tipo de recursos. En un primer momento, cada diócesis marcha un poco por su cuenta, pero en 1969 se configura un único equipo, de todas las diócesis vascas, de traductores de textos eclesiásticos. D. Carmelo ha trabajado durante muchos años en ese equipo, junto a otros preclaros sacerdotes vizcaínos, entre los que recordamos de forma destacada al Padre Lino Akesolo OCD (q.e.p.d.) y a nuestro amigo común Mikel Zárate (G.B.).

* * *

60. hamarkadako urteak arlo askotan izan dira aberats eta frutu emoileak. Elizarentzat ere urte bizi eta gogoangarriak doguz. Vaticano II. Kontzilioa ospatzen da, amets, asmo eta itzaropen ujolez gainezka, etorkizun hobe batera bultz egiten deuskula, eliza eguneratua gaurko munduaren benetako zerbitzari izan daiten. Gure euskera bere, lehenengo aldiz, ofiziala da elizan. Eta horra hor, gure euskal erlijioso eta abadeak, akuluganaren eragin pean balira lez, bizkor eta eginkor, eliztarren artzain ardura estimagarritz, eliz-testuak euskeratzen, Jesukristoren Barrionaren mezu salbagarria ama-hizkuntzan, era uler-garriagoan eskeini guran.

Eta euskeratze mundu horretan sartzen da hasieratik gure Karmelo, Arratiako Aita Lino Akesolo eta beste batzuekin batera. Zenbat ekitaldi, zenbat batzar, zenbat izerdi, zenbat paper, zenbat kilometro, zenbat ardura, zenbat ekarpen eta zenbat konpontze-bide, euskalki ezbardinetako beste lankideekin. Baina era berean, zenbat pozaldi eta zenbat adiskide barri, harik eta Erromara bidaiara ere egin arte (Handiazabal, Larre, Lekuona, Etxezarreta, Akesolo, Zarabe, Zarate, Sarobe, Otxandorena...)...

Gerora bere, hor jarraitu dau Karmelok, zeregin askoren eta ardura astunen artean parte hartze urriagoa izan badau bere. Dana dala, jakin egizue, gaur Bizkaiko eliza guztietan irakurten dan «Irakurgai Liburua» (lau bat kilokoa) letraz-letra Karmelok bere makina txikian («golda» ez-elektrikoan) idatzia izan dala. Neu naz horren testigu. Eta holan isileko beste lan asko eta asko. Goztaitegiak berba egiten baleki...! Orain ere etorten da batzutan gure batzarretara, euskerazko baliabideak eratzen dihardugun taldearen ekitaldietara.

* * *

+ En 1969 se empieza a gestar una realidad fecunda y eficaz para la diócesis de Bilbao y para Bizkaia: «Udako Euskal Ikastaroa» de Derio. Nació de una constatación de que los sacerdotes (y personas de Iglesia dedicadas a la pastoral) no estaban alfabetizadas, por lo que no podían ejercer con dignidad su función de proclamación y educación cristiana. Ante la primera intuición que se la debemos a D. Julián Olazabalaga, Ander Manterola dialogó con Carmelo, con Mikel Zárate y conmigo que, a la sazón, dábamos clases de euskera en el Seminario de Derio. Ahí nació lo que después se convirtió en una gran institución, que ha alfabetizado a muchos sacerdotes y ha sido cuna de muchísimos profesores y escritores, con gran beneficio de la docencia de la lengua vasca en ikastolas, colegios, institutos e incluso en las universidades, con un auge considerable de obras literarias, ensayos y estudios críticos.

* * *

1969. urtean Bizkaiko elizbarrutiko Julian Olazabalagak, herri-eskualdetako pastoralgintzarako arduraduna zanak, kezka eta ardura larria bizi eban Bizkaiko herri txikietan euskeraz egiten ziran liturgikizunak eratzeko abade asko eta asko gauza ez zala ikustean. Gerra osteko abadeen belaunaldiak, ta-

malez, ez eban izan ezelango aukerarik euskal hizkuntza gaitan gitxieneko prestakuntza eskuratzeko.

"Hori zala-ta, euskeraren irakaskuntzan esperientzia euken Seminario Txikiko eta Nagusiko irakasleengana jo eban. Irakasle taldeak idazkera, aditza, atzizkibidea eta deklinabidea lantzeko ikasgaiak eta ariketak eratu zituan, eta Bizkai-ko idazleen lorategitxo bat, testu-txatalen oinarri-oinarrizko azterketa eta zeregintxoekin. Ander Manterolak hartu eban erakuntza nagusiaren ardua eta Karmelo Etxenagusiak eta Mikel Zaratek leporatu eban irakaskuntza arloa, Lorentzo Zugazaga material prestakuntzarako lagun ebela (ik. K. Josu Bijuesca «25 urtean» (1970-1989) in LABAYRU IKASTEGIA."

Derioko Udako Euskal Ikastaroa 17. or.).

Hogei urtetan izan da Karmelo Derioko udako ikastaroetan irakasle. Bera da «dekanoa» hango goi-mailako tituluen diplometan agertzen danez. Hainbeste abaderen euskerea lantzen eta hainbako beste askoren (ikasle eta ostantzeko) trebatze lanean jardun izan dau etengabe hogei ikastarotan. Literatur lanak ezagutzen, irakurten, aztertzen eta gozaten berebiziko laguntza jaso izan dabe urte horreetan Karmeloren ikasleak. Karmelo, gainera, ez da izan ikasleak estutu eta ito aginean jarri ohi dabegan irakasleetakoa. Bere irakasbidea bigunagoa, hurkoagoa, pedagogikoagoa izan da. Jakinmina eta egarria suspertuz bideratu izan dau autoreen ezagutza eta literatur-lanak ahogozatzen eta ahogoza eragiten jarri dau bere maisutasun bigun baina eraginkorra. Oraindik gogoan dodaz «Zatozkida Goi-Arnas...» «Txori banintz...»«Oi bart...» eta beste hainbeste kanta, Euskaldunak poema irakurtean guk ikasi eta zuk grabatu zenduzanak.

* * *

+ Más tarde, desde el Instituto Labayru y el Ikastaro de Derio le publicaron dos antologías más, especialmente para sus alumnos: la de escritores vascos en euskera vizcaíno y la de escritos y escritores de Iparralde. Así nos confiesa:

«Neure ikasleentzat beste antologia bi argitaratzen deustez, bizkaiko euskal idazleena eta iparraldekoa». *Euskal idazleak bizkaieraz* (Jon Kortazar y Aitor Etxebarriaren lankidetzaz), Bilbao 1980, eta *Iparraldeko euskal idazleak*, Bilbao 1988.

+ El año 1989 recibió el merecido y agradecido homenaje del *Ikastaro de Derio*.

XX. Udako Euskal Ikastaroko Ikas-ospakizuna da Karmelori Derioko Ikastaroak egindako omenaldiaren lekuko. Ander Manterola, Adolfo Arejita, Jose Mari Rementeria eta Lorentzo Zugazaga izan ziran –ginan– esker oneko hizlari ospakizun horretan (ik. LABAYRU IKASTEGIA, *Derioko Udako Euskal Ikastaroa* 271. or.).

+ Además de las obras –antologías– publicadas, Carmelo ha publicado algunos artículos, no muchos, en revistas como «Redención», «Agur», «Zer»..., y han sido muchísimas las homilías y charlas dadas en euskera en muchas parroquias de Bizkaia.

* * *

Berak autortzen deuskunez, «berbaldiak euskeraz sarritan emon izan ditut, hainbat eleizatan, baina idatzi eta argitaratu, oso gitxi: artikuluko solteren batzuk aldizkari batzutan, baina gauza handirik ez».

* * *

+ Junto a ese denso entramado que refleja la relación entre D. Carmelo y el euskera, en la Curia Diocesana de Bilbao hay constancia de los muchos e importantes nombramientos y cargos, que manifiestan el servicio de nuestro homenajeador a la Iglesia y a la sociedad de Bizkaia:

- Formador del Seminario Menor: 1955.
- Estudios de Derecho Canónico en Comillas: 1958-60.
- Formador del Seminario Mayor: 1960.
- Delegado Diocesano de cinematografía: 5-10-1961.
- Capellán del Monasterio del Refugio, Begoña: 10-11-1963 (atseginez gogoratzen dot han bizi zineneko zure amaren irribarra).
- Canciller Secretario de Cámara y Gobierno del Obispado: 27-11-1968
- Encargado Diocesano de Relaciones con Prensa y Radio: 27-11-1968.
- Vicario Episcopal Territorial de la Vicaría III: 27-09-1973.
- Curso de Formación Permanente del Clero, Salamanca: 10-1976.
- Vicario Episcopal de la Curia Diocesana: 15-11-1977.
- Poder general ante Notario para representar a la Iglesia Católica en su Diócesis de Bilbao, con totalidad de facultades: 14-12-1977.
- Vicario General de la Diócesis: 7-04-1980.
- Canónigo de la Santa Iglesia Catedral: 19-03-1982.
- Miembro del Consejo Diocesano de Asuntos Económicos: 30-03-1987.
- Miembro del Consejo Pastoral Diocesano: 20-02-1988.
- Párroco (Moderador) de la Parroquia-Basílica de Begoña: 1-09-1990.
- Responsable de la Parroquia de la Santa Cruz de Begoña: 14-08-1993.

- Obispo Auxiliar de la Diócesis de Bilbao: 8-09-1995. Ordenado Obispo el día 9 de noviembre de 1995.
- Presidente del Consejo de las Radios de la Diócesis: Radio Popular y Bizkaia Irratia.

* * *

Eta gauza guztien gaintik bere izakera eta bizikera goratu beharko neuke: apala, hurkoa, gizakoia, bakezale eta bakegilea, abegi onekoa eta gogorkeria mota guztien aurkaria. Ez litzateke ahaztekoa bere jokabide samur eta maitekorra D. Antonio Añoverosen gaixoaldi luzean. Eta gogoangarria eta eskertzekoa nire makalaldian Benidormen berak eta Jose Mari Rementeriak eta hirurok lan eginez eta atsedean hartuz egin genduan egotaldia. Bai, badeutso zorrik gure elizbarrutiak On Karmelori, eta ez da txikiena berak gure gotzain izatea onartzea! Gotzain modura, itsasoz bestalde, Ameriketan bizi diren euskaldunekaz ere izan ditu hartu-emonak; aurtengo udaldian ere hara osterea egitekotan dogu.

Ez dira alde batera itzi beharrekoak bere afizino handiak ere: txirritularitza (Barrutiatarrak dira auzoak), mendigoizaletasuna, igeriketa zaletasuna...

* * *

+ Os comunico también una noticia que puede constituir una primicia. Carmelo ha dejado en manos de Ander Manterola una serie de escritos no publicados.

«Orain, Ander Manterolak eskatuta, neure idazlan mordo bat bere eskuetan itzi dodaz, libururen bat argitaratu nahi dauala-ta. Bizkaiko euskal gotzain baten izenean argitaratzen dan lehenengoa izango ei da; ez dau beste merezimendurik izango» –dino, apal eta bare, gure On Karmelok–.

* * *

Conclusión

Considero que la pequeña semblanza de su vida y obra le hacen acreedor del premio de la «Pluma de Oro».

- Su intensa y continuada labor docente, fuente de muchos escritores en euskera.
- Su profunda y amplia tarea en la traducción de los textos eclesiásticos.
- Sus publicaciones en torno a la literatura vasca.

* * *

Su condición de:

- Académico Correspondiente de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca: 24-IX-1965.
- Académico de Honor de la misma Institución: 24-IV-1998.
- Socio de Honor de EIZIE (Asociación de Traductores, Correctores e Intérpretes: 4-X-2002.
- Obispo Auxiliar de Bilbao: 8-IX-1995.

Son como los hitos o «cairns» –como denominamos los amantes del Pirineo– que orientan a la cima del premio de la «Pluma de Oro».

* * *

Labur bada ere, sariaren gailurra lortzeko Karmelok izan dituan oinarri eta ezaugarrien batzuk adierazten ahalegindu naiatzue.

Eskerrik asko, Karmelo, eta baita, erakundeetako ordezkari eta hainbako beste guztioi bere.

KARMELO ADISKIDE
 ETA EUSKALTZALE
 HAINBESTE ABADEREN
 BIDE-ERAKUSLE
 IKASLE OSPETSUEN
 MAISU TA HEZITZAILE
JASO «URREZKO LUMA»
ESKER-ADIERAZLE.

BILBOKO XXXIII. LIBURU AZOKARAKO lagungarritxo

On Karmelo Etxenagusia

Nació en Iurreta (Bizkaia) el 24 de abril de 1932. Ordenado presbítero el día 29 de Junio de 1.955. Licenciado en Derecho Canónico por la Universidad de Comillas (1.960). Profesor de euskera desde 1955 hasta 1989. Miembro Fundador y Profesor de los Udako Euskal Ikastaroak de Derio (1970-1989). Ha realizado una gran labor en el Equipo Diocesano y en el Interdiocesano de traducción de los libros litúrgicos: Misal, Rituales de Sacramentos, etc. Su tarea docente se ha centrado sobre todo en el área de la literatura vasca, ofreciendo con una metodología pedagógica algunas antologías: *Bizkai'ko Euskal idazleak. Lorategia*. Derio 1965 (policopiado). *Gipuzkoa'ko Euskal-idazleak. Lorategia*. Derio 1967 (idem). *Euskal Idazleen Lorategia. Itz lauz*. Donostia 1969. *Euskal idazleak bizkaieraz* (en colaboración con Jon Kortazar y Aitor Etxebarria), Bilbao 1980. *Iparraldeko Euskal Idazleak*. Bilbao 1988.

Ha ejercido en la diócesis de Bilbao cargos relevantes entre los que destaca el de Vicario General (1980). Es además:

- Académico correspondiente de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca: 24-IX-1965.
- Académico de Honor de Euskaltzaindia: 24-IV-1998.
- Socio de Honor de EIZIE (Asociación de Traductores, Correctores e Intérpretes de Euskara): 4-X-2.002.
- Obispo Auxiliar de Bilbao: 8-IX-1995.

Lorentzo Zugazaga